

Ostalariek % 60 aurrez dezakete faktura energetikoan Fagor Industrialen gas-ontzi-garbigailu berriarekin

- **Erabateko berringeriaritza prozesu baten emaitza gisa, Oñatiko konpainiak arrastreko ontzi-garbigailuen lerro berria merkaturatu du.**
- **Gainera, Fagor Industrialek fabrikatzaile europarren artean bakarra den soluzioa eskaintzen du: arrastreko ontzi-garbigailuen ECO bertsioak modelo guztietan. Gailu horiek faktura energetikoan % 60 aurreztea ahalbidetzen duen gas-sorgailua dute.**

Oñatin, 2018ko maiatzaren 17an - Fagor Industrialek, ostalaritzarako ekipamenduan, sukaldaritza kolektiboan eta garbitegian liderra den fabrikatzaileak, **arrastreko ontzi-garbigailuen lerro berria merkaturatu du.**

Erabateko berringeriaritza prozesu baten emaitza gisa, Oñatiko konpainiak sendotasunak, produzitzeko gaitasunak, malgutasunak eta energia-efizientziaren datu ezin hobeeak (*uraren eta elektrizitatearen kontsumoari dagozkionak*) bereizten duten gama aurkeztu du.

ECO BERTSIOAK

Fagor Industrialek, halaber, Europako fabrikatzaileen artean bakarra den soluzioa eskaintzen du: ur beroaren sorgailua erabilita faktura energetikoan % 60 aurreztea ahalbidetzen duten arrastreko ontzi-garbigailuen ECO bertsioak. Modu horretan, bertsio elektrikoekiko gainkostua 3 bat urtean berreskura daiteke.



Ontzi-garbigailu hauek garbitzeko plater asko dituzten lekuetarako pentsatutakoak dira: hotelak, ospitaleak, jatetxeak, eta abar. Izan ere, toki horietan kantitatea bakarrik ez, gero eta zorrotzagoak diren elikagaien segurtasunaren eta osasunaren exijentziak ere oso garrantzitsuak dira.

Ontzi-garbigailu hauek 80 – 85 °C arteko temperaturan erabiltzen dute ura urberitze prozesurako; horrela, platerak, bandejak eta mahai-tresnak ondo garbitzea bermatzen da, eta, era berean, oso errendimendu altua lortzen



ONNERA GROUP



dute, bertsio elektrikoek baino kostu baxuagoarekin. Oso aproposak dira gasa baliabide natural gisa duten herrialdeentzat, erregai horren kostua energia elektrikoarena baino baxuagoa denean.

ECOek ur beroaren gas-sorgailua dute, batez ere honako hiru onurak dakartzana:

- Ontzi-garbigailu konpaktoaren upela sorgailutik datorren ur beroaren laguntzarekin betetzen da, eta horrek makinaren zikloaren iraupena murrizten du. (Lanean denbora gutxiago energia gehiago aurrezteko).
- Erabilitako energiaren kostua ahalik eta baxuena izateak eta doitze lanetan denbora gutxi pasatzeak kW kostu/platera murrizten dute, eta ondorioz, baita faktura elektrikoa ere, % 60 arte. Horrek bertsio elektrikoekiko gainkostua 3 bat urtean berreskuratzea ahalbidetzen du, aukeratutako modeloaren eta egindako erabileraren arabera.
- ECO modeloek ez dute laguntzen lokaleko kostuetan aurrezten bakarrik, planetako baliagai naturalak zaintzen ere laguntzen dute, eta askoz onuragarriagoak dira ingurumenerako, hondakin kutsagarrien isuria nabarmen murrizten dutelako.

Fagor Industrialen inguruan

Fagor Industrial, Mondragon kooperatibako kidea, ostalaritzarako ekipamenduetan, sukaldaritza kolektiboan eta garbitegian liderra da, eta munduko sukalde eta instalazio onenetan dago. 60 urtetik gorako esperientzia du, eta ostalariaren egunerokoa eta beharrak ondo ezagutzen ditu; horregatik, Fagor Industrialek marka bereko produktuen gama integrala eskaintzen du. Fagor Industrial nazioarteko ONNERA Group enpresa-taldeko kide da, mundu osoan zehar 8 lantegi eta 2.000 langile baino gehiago dituen taldea.

Informazio gehiagorako edo elkarrizketak kudeatzeko, jarri harremanetan:

LEWIS

Marina Obrero / Nuria Mañá

FagorSpain@teamlewis.com

917 701 516



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com